

GERRAREN ERAIKUNTZA

Arkitektura: film mintzairak

2011ko abenduaren 9tik 16ra

GERRAREN ERAIKUNTZA

Arkitektura: film mintzairak

2011ko abenduaren 9tik 16ra

Zuzendaritza: Santiago Eraso, BNV Producciones eta Cristina Enea Fundazioa

Antolatzaileak: Cristina Enea Fundazioa, Donostia 2016. San Sebastián eta San Telmo Museoa.

Ekoizpena: BNV Producciones

Arkitektura, film mintzairak - Gerraren eraikuntza ekimena Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu izateko Hautagaitza programaren barruan dago

Aurkezpena

"Mundua suntsitzeko xedez hartu da azkenean, agerikoa izatea lor daitekeen neurrian"
Rey Chow, *The Age of the World Target*, 2006

Carl von Clausewitz-en (1730-1831) aipu ezagun batek dioenez, "gerra, Itun politiko bat izateaz gain, tresna politikoa, harreman politikoen jarraipena da, beste bide batzuetatik hedatzen dena". Tom Vanderbilt-en iritziz, era berean, beste bide batzuetatik arkitektura hedatzea bezala litzateke gerra. Berez, gerrari lotutako arkitekturatik harago (batetik, eraikuntza militarrek eta, bestetik, babeslekuak eta defentsa sistemak), prozesu arkitektonikotzat hartzen den gerra dago, gerra-zinematik harago gerraren ikus-entzunezko esperientzia bizitzen dugun bezala eta, are gehiago, gerra bera ikus-entzunezko esperientziatzat hartuta.

Bai arkitekturaren bai gerraren helburu nagusia hauxe da, lurraldea kontrolatzea. Horretarako, biek garatzen dituzte arazo espezifikoak "lekuan bertan" konpontzeko estrategiak, eta biek erabiltzen dituzte sartuta dauden testuinguru kulturalaren sinboloak eta erretorika. Hiri-plangintzatzaileak eta estrategia militarrek tresna diskurtsibo, taktiko eta errepresentaziozko berak erabiltzen dituzte: oinplanoan erakusten den hiriaren mosaiko antzeko irudiaren aurrean (ziurrenez satelite berak jasoa), bai batak bai besteak definitzen dituzten interbentzio estrategiak botereak onartutakoak dira, dituen premien arabera, gatazkan dagoen lurralde baten konfigurazio urbanistikoa aldatzeko.

Eyal Weizman-ek adierazi bezala, hainbat autorek, besteren artean Bataille, Deleuze eta Guattari-k edo situazionistek proposatutako tresna kritikoak sakonetik aztertu eta gauzatzen dituzte orain

militarrek. "Ezarritako hiriko 'ordena burgesa' hausteko asmatu izan ziren taktikak, hormak – etxeak, hirikoak edo geopolitikoak– errepresio soziala eta politikoa islatzen zuten elementu arkitektonikotzat hartuta, beste taktika batzuen inspirazio-iturri dira, israeldar armadaren eskuetan, hiri 'aurkari' bat erasotzeko oinarriak adierazten dituztenak. Giza Hezkuntzaren jabe egin dira, sarritan inperialismoaren kontrako armarik ahalmentsuentzat hartzen dela kontuan hartuta, eta botere kolonialarentzat berarentzat ahalmen handiko arma bihurtu dute".

Gerra sufritzen ez duenarentzat, gaur egun, gerrak berak sorrarazi eta hedatzen dituen irudien "errealismo" mailak zehazten ditu gerraren "errealitate" mailak. Telebistako kazetaritzak modu trakets batez efektu zinematografikoak (muntaia, musikaren erabilera) erabiltzen dituen bitartean gerrako gatazken irudiei buruzko "sentsazio" interesatuak sorrarazteko, zineak kontrako norabidea jorratzen du, aurkezten dituen fikzioen egiantzeko ilusioak sortzeko teknikaren aukerak arakatuz. *Salvar al soldado Ryan* (Steven Spielberg, 1998) filmean, ohikoa baino obturadore-abiadura handiagoaz jaso ziren irudiak, hain zuzen ere plano bakoitzean definizio handiagoa lortzeko eta errealismoa areagotzeko; eszenen kolorea moteldu egin zuten, ordea, XX. mendearen erdiko gerra-filmen itxura hartzeko, irudien sinesgarritasuna ziurtatzearen memoriaz baliatuz. *En el valle de Elah* (Paul Haggis, 2007) filmean, soldaduetako batek telefono mugikorreko kamerarekin grabatua dirudien eszena batean lortzen da momenturik gogorrena. Irudien egiazkotasuna, erakusten diren gertaeren argitasuna baino gehiago, gaur egungo egunerokotasuna irudikatze moduak direla eta

erabiltzen den hizkuntza bisuala egokitzea da kontua. Jean-Luc Godard-ek *Nuestra música* (2004) filmean egiten duen komentario batek argitzen du formak kasu hauetan duen garrantzia: "juduak fikziozko material bihurtzen dira; palestinarrak, berriz, dokumentaletakoak".

Eraikinak berak direla-eta, hainbat autore bat datoz adieraztean arkitekturak helburu, jomuga estatusa duela. Eraikinak ingurune "segurutzat" har daitezke, baina baita garaitu beharreko helburutzat ere. Bulegoetako eraikin bat dominazio inperialistaren sinbolo izan daiteke (Word Trade Center eraikina, adibidez). Era berean, horma batek autobabes sistema izatetik opresioaren arkitektura bihurtu daiteke kanpotik (Palestina eta Israel banantzen dituen horma, adibidez). Ez baitago babes-arkitektura eraginkorrik. G. W. Sebald-ek *Austerlitz*-en dioen bezala, halako eraikinak amaituta egon aurretik ere, beti gainditu izaten dituzte azkenean artilleriaren eboluzioak eta kontzeptu estrategikoen, guztia mugimenduan, ez ordea gelditasunean, erabakitzen delako ustea, gero eta gehiago zabaltzen doana, kontuan hartzen dutenek, alegia.

Irailaren 11ko atentatuek Word Trade Center-eko eraikinak bihurtu zituzten gertatutako tragediaren benetako protagonista, eta gatazkaren aurrean irtenbide politikoak aztertu edo bilatzearen gainetik, suntsitutako espazio arkitektonikoa berreraiki behar izatea bihurtu zuten hasiera-hasieratik presako neurri: gatazkari arkitektura garaikidearen praktikatik irtenbidea ematea beharrezkoa zen, monumentu (arkitektoniko) bat eraikiz, eraikin zaurituaren lekua berehala hartu eta "zero gunea" edukiz beteko zuena, urbanismoak ez baitu onartzen hutsunerik hiri handi baten erdi-erdian. Baina komunikabideetan irudi jakin

bat hedarazteaz ere arduratu ziren: New Yorkeko suhiltzaileena, gatazkaren heroitzat hartuta. Thomas E. Franklin-en bat-bateko argazki ezagun batean hiru suhiltzaile ageri dira etxe orratzen artean bandera estatubatuarra altxatzen, Joe Rosenthal-ek ateratako beste argazki baten aipamen zuzena, 1945ean, Iwo Jima-n, soldadu estatubatuarrek bandera ipintzen erakusten dituenarena. Izan ere, argazki horren egiazkotasuna ardatz hartuta garatzen da *Banderas de nuestros padres* (Clint Eastwood, 2006) filmaren argumentua.

Vanderbilt-en hitzetan, "Hizkuntzaren biolentziak eragina du bai gerran bai arkitekturaren", eta are gehiago esan genezake gaur egun hizkuntza menderatzaile bat baldin badago hauxe dela, ikus-entzunezkoa.


2011ko *Arkitektura: film mintzairak* programan, bai komunikabideen bai arkitekturaren ikuspegitik eraikuntzat hartuta landuko da gerraren ideia. Hala, film proiektzioak, hitzaldiak eta tailerrak proposatuko dira, adituak eta profesionalak ez ezik arkitektura, zine eta antzeko beste arlo batzuetako ikasleak ere partaide izango direnak.

Ekitaldi guztiak publiko interesatuari irekiak dira. Eyal Weizman eta Hito Steyerlen lantegia kenduta. Izena eman behar da bertan parte hartzeko Horretarako, datu pertsonalak bidali behar dira (izena, lanbidea, e-maila eta telefonoa) cristinaenea@donostia.org helbidera.

Tailerrean parte hartzeko izena emandakoen ordenari jarraituko zaio, kopurua bete arte.

Tailerra ingelesez izango da, aldibereko itzulpenik gabe.

Programa



Tailerra

2011ko abenduak 9 eta 10

Abenduak 9 Ostirala

18.00 - 21.00

Desagertuak - saioa

Hito Steyerl-ek emana

Abenduak 10 Larunbata

10.00-13.00

Auzitegi estetikak-saioa

Eyal Weizman-ek emana

Lekua

CRISTINA ENEA FUNDAZIOA. Mandasko dukearen pasealekua 66, Donostia



1. saioa

2011ko abenduak 13

19:00

Zikloaren aurkezpena

19:30 Aurkezpena

Bi hiriren historia

Pedro G. Romero-k emana

20:30 Proiekzioa

Nuestro Culpable

Fernando Mignoni, 1937, Espainia, z/b, 88'

22:00 Proiekzioa

Rojo y negro

Carlos Arévalo, 1939, Espainia, z/b, 76'

Lekua

SAN TELMO MUSEOA, Zuloaga plaza 1, Donostia



2. saioa

2011ko abenduak 14

19:30 Aurkezpena

Kanaletako urak zeharkatzen dituzten ontziak jitoan

Miren Jaiok emana

Hitzaldia euskaraz izango da

20:30 Proiekzioa

Sweet Movie

Dusan Makaveje, 1974, Kanada, koloretakoa, 95'

Lekua

SAN TELMO MUSEOA, Zuloaga plaza 1, Donostia



3. saioa

Osteguna, 2011ko abenduak 15

19:30 Aurkezpena

Emergencias y catástrofes

José Miguel de Prada Poole-ek emana

20:30 Proiekzioa

La selva esmeralda

[*The Emerald Forest*] John Boorman, 1985, Britainia Handia, koloretakoa, 108'

Lekua

SAN TELMO MUSEOA, Zuloaga plaza 1, Donostia



4. saioa

Ostirala, 2011ko abenduak 16

19:30 Aurkezpena

Movilizados por lo Real: turistas, soldados, artistas

José Díaz Cuyás-ek emana


20:30 Proiekzioa

Spiritual Voices

[*Dukhovnye golosa*] Alexander Sokurov, 1995, Errusia, koloretakoa, 328'. 4º kapituluua 72

Lekua

SAN TELMO MUSEOA, Zuloaga plaza 1, Donostia



Ekintza paraleloak

2011ko abenduaren 12tik

2012ko otsailaren 23ra bitartean

Otxarkoaga: Bilbao berriaren Hastapena

Astelehena, 2011ko abenduak 12

19:00

Inaugurazioa

Lekua

COAVN. Frantzia pasealekua, 11. Donostia



Tailerra

2011ko abenduak 9 eta 10

Desagertuak / auzitegi estetikak

Hito Steyerl-ek eta Eyal Weizman-ek zuzendua

Desagertuak: Irudien gorputzak

Auzitegi Zientziek gorputzen irudiak edo, zehatzago esanda, irudien eta gorputzen arteko elkarrekotasuna lantzen badute: Zein izango litzateke irudien gorputzari buruzko gure ustea? Zer izango litzateke, berez, irudiaren ikerketa auzitegian? Zer pentsatuko genuke objektuez – hezurak edo paisaiak esate baterako– iruditat edo monadatzat hartuta? Indarrak, nahiak eta denbora estratuak kondentsatzen dituzten objektuez? Nola argitu dezakegu indar eta sedimentu horien muina 2D irudietan? Eta irudiaren zauriak indarkeria politiko eta sozialaren ebidentziatzat hartuko bagenitu?

Zera gertatzen da sarritan, beti ez ordea, gorputza dela irudian desagertzen dena, irudiak ordeztzen duen gorputza, alegia. Baina: Zein da desagertuaren izaera? Zer lotura du zehaztugabetasunarekin edo linboarekin? Nola

azaltzen du ezintasuna, gorputz bat eta irudi bat, burezur bat eta aurpegi bat, hezur bat eta gizaki bat, krimen bat eta kasu bat parekatzeko ezintasuna? Eta nola adierazten da parekatu ezin hori irudien gorputzen bitartez?

Auzitegi estetikak


XX. mendeko azken hamarkadetan, zenbaitetan “lekukoaren aroa” deitu izan zaien horietan, gainezka egin zuten “traumaren testigantzen” errepresentazioek (idatziak, grabatuak, filmatuak, artxibatuak eta erakutsiak). Historiaren lekutzat traumak lehentasuna izateak hona eramán gaitu, trantsiziozko justiziaren foroetan eta egiaren, giza eskubideen eta humanitarismoaren batzordeetan antzeman daitekeen “errukiaren politika” despolitizatura. Hala ere, azkenaldi honetan aldaketa bat sortzen ari da, giza testigantza baino auzitegiko materiala azpimarratzen delako, eta

horrek esan nahi du zientzia hasia dela legearen eta kulturaren esparruetako batzuk menderatzen, aurretik gizakiaren diskurtsorako soilik zirenak.

Potentzialki, beraz, auzitegi zientziaren usadio berriek lausotu egin dute lehen argi zegoen bereizketa: frogen, legeak objektuez diharduenean, eta lekukoen, subjektuez ari denean, artekoa. Tailerrean, kasuak berriz aztertu eta auzitegiko zenbait ikerketa analizatuko dira, esaterako hobitiek ateratako Joseph Mengele-ren buzezuraren 1985eko azterketa. Objektu/fetitxe hau baliagarria izan zen XX. mendearen amaierako auzitegi zientzien arazo zientifiko eta epistemologiko handienetako bat azaltzeko.

Hito Steyerl zuzendaria eta idazlea da. Tokion zinemagintza ikasi eta München dokumentalak egin aurretik, zineko espezialista, diskotekako gorila eta bondage modelo izan zen. Literaturan eta zinean egin izan dituen saiakerek benetan dokumentalak diren produkzioaren dilema dute ardatz eta ondoeza politikoa, ikuskizuna eta indarkeria arakutzen dute, baita gaur egungo komunikabideen ekonomia politikoa ere. Bere lanak ikuspegi feminista azpimarratzen du, funtsean terminoaren esanahia ezagutzen ez eta hizkera digitalaren bertsio makurrenak eta proletarioenak lantzen baditu ere. 2008 eta 2009 urteetan, Berlingo Workers Punk Art School-en lan egin zuen. Idatzi izan dituen liburuetako batzuk hauexek dira: *The Colour of Truth* (2008), *Beyond Representation* (2011) eta *The Wretched of the Screen* (laster kaleratuko dena).

Eyal Weizman arkitektoa da, eta Tel Aviv eta Londres ditu bizileku. Britainia Handiko hiriburuan graduatu ondoren elkarlanean aritu zen Zvi Hecker-ekin Berlingen. Rafi Segal arkitektoarekin batera Ashdod Museum of Art berreraiki zuen (2003an inauguratua) eta proiektuak egin zituen Itim Theatre Company eta Tel Aviv Museum-erako. *A Civilian Occupation*, *The Politics of Israeli Architecture* erakusketa eta katalogoa, Rafi Segal-ekin batera editatu eta komisariatu zuena, debekatu egin zuten Arkitektoen Israelgo Elkarteak. Hala ere, geroago, New Yorkeko Storefront Gallery for Art and Architecture-n, Berlingo Kunst-Werke Institute for Contemporary Art-en eta Rotterdameko Witte de With Center for Contemporary Art-en egon ziren ikusgai, besteren artean. Londresko Unibertsitateko Goldsmith Centre for Research Architecture-ko zuzendaria da, baita *Forensic Architecture* ikerketa proiektuarena ere.



Tailerraren egitaraua

➔ Ostirala, 2011ko abenduak 9

Lekua: CRISTINA ENEA FUNDAZIOA. Mandasko dukearen pasealekua 66, Donostia

18:00 - 21:00

Desagertuak. Saioa Hito Steyerl-ek emana

➔ Larunbata, 2011ko abenduak 10

Lekua: CRISTINA ENEA FUNDAZIOA. Mandasko dukearen pasealekua 66, Donostia

10:00 - 13:00

Auzitegi estetikak. Saioa Eyal Weizman-ek emana

Izena eman behar da tailerrean parte hartu aurretik. Horretarako, datu pertsonalak bidali behar dira (izena, lanbidea, e-maila eta telefonoa) cristinaenea@donostia.org helbidera. Tailerrean parte hartzeko izena emandakoen ordenari jarraituko zaio, kopurua bete arte. Tailerra ingelesez izango da, aldibereko itzulpenik gabe.





1. saioa

2011ko abenduak 13

Bi hiriren historia

Pedro G. Romero-k emana

Nuestro culpable "Lubitsch" kutsua darion komedia da, CNTk Madrilgo setio aldiari ekoiztua. *Rojo y negro*, tragediaren ondoren bakeak egitea nahi dituen drama falangista, agintari frankistek isilarazteraino. Gerra bizitzen ari den hiria (ekoizpen baldintzak oso agerikoak dira bi filmetan) oraindik ere gaur egun operatiboak izaten jarraitzen duten bi ereduren pean aurkezten da: goitik, Jainkoaren hiria, gure metropoli sekularizatuen eredu teologiko eta bertikaltzat hartuta; behetik, espazio mugikorra, horizontala eta aldakorra, betiere legearen eta delinkuentziaren arteko anbiguotasunari adi, kontuan izanik paradigma hori, onerako edo txarrerako, inauteriko salbuespenak eratzen duela. Bi filmetan kartzelak irudikatzen diren moduan erreparatzea, nahikoa. *Rojo y negro*-ren oinazearen jauregiak ilundu egiten du *Nuestro culpable*-n vaudeville hori, instituzioari edozein diziplina uko

egiten diola dirudiena. Gerra bizi duten hiriak, bi dolu eredu ere azaltzen dutenak: batean, oinazea, biktimak eta barmanena; bestean, iraultzak garaitu balu bezala, ez zaie gorroto lehenaldiko "kapitalistei" eta, izan ere, dagokion sistemari barre egiteko aukera izango dugu.





Pedro G. Romero-k 1985az geroztik ari da artean. PRPCKo kide da (Kultur Politiken Gogoeta Plataforma) Sevillan, baita UNIA arte eta pentsamendu edukien taldekoa ere Andaluziako Nazioarteko Unibertsitatean. Laurogeita hamarreko urteen amaieratik bi proiektutan ari da lanean: Archivo F.X. eta Máquina P.H. Duela gutxi, Archivo F.X.n, Fundació Antoni Tàpies-en *La ciudad vacía*: (2005-2007) proiektuaren ekoizpen lana da nabarmentzekoa. 2010ean, Tranzit kolektiboarekin lan egin zuen *Monument on transformation*-en, Gasteizko Montehermoso Kultur Etxerako, eta Manifesta8, Murtzia-Cartagenan ere bai. Gainera, lanak aurkeztu izan ditu Oportoko Serralves Museoan, *¡A las artes, ciudadanos!*, CCCBn, Bartzelonan, *El (D)efecto barroco* eta MNCARSen, Madrilén, *Atlas*, azken hau Georges Didi-Huberman-ek komisariatua. Eta Máquina P.H.n, nabarmentzekoa da Israel Galván flamenko dantzariarentzako lanen zuzendaritza. 2010ean, *Ocaña, 1973-1983, acciones, actuaciones, activismo* erakusketaren komisarioa izan zen Bartzelonako Virreina-n eta Gasteizko Montehermoso Kultur Etxean. José de Val del Omar-i buruzko bere lanetako bat argitaratu berri dute Ediciones Mudo-n, *Exaltación de la visión* izenez.

1. Saioaren egitaraua

🕒 Asteartea, 2011ko abenduak 13

Lekua: SAN TELMO MUSEOA, Zuloaga plaza 1, Donostia

19:00

Zikloaren aurkezpena

19:30 Aurkezpena

Bi hiriren historia, Pedro G Romero-k emana

20:30 Proiektzioa

Nuestro Culpable. Fernando Mignoni, 1937, Espainia, z/b, 88'

Film hau langile klaseari buruzko Chaplin, Keaton eta Clair-en pelikulak eta neorealismo italiarra batzen dituen kate-mailatzat hartzen dute batzuek. CNT-FAI etxeak 1937an Madrilén ekoiztua da eta "el Randa" goitizenen duen gaizkile madrildar xume baten gorabeherak erakusten dizkigu. Film osoan nagusi den fartsa giroaren atzean garaiko ideario anarkista dago ezkutuan: moral kapitalistari eta bankariaren moral ustelduari egindako kritika, gaizkilearen errebindikazioa eta agintariengandik jasotako gaitzespena. "El Randa" Urquina bankariaren etxean sartzen da objektu batzuk lapurtzeko, ezkontza batean oparitzeko asmoz. Hala ere, ustekabeen harrapatuko du bankariaren maitaleak, bi milioi dolarrekin ihes egiteko aukera emango dionak. "El Randa" atxilotuta eta lapurreta horregatik akusatuta, bankariak konprometituta ikusten du bere burua eta ustezko erruduna tratu berezi baten bidez kartzelan mantentzera behartuta, kasua daraman epailea harrিতuta utziko duen erosotasun handiz giltzapetuta bizi den lekuan.

22:00 Proiektzioa

Rojo y negro. Carlos Arévalo, 1939, Espainia, z/b, 76'

Hau baliteke izatea Gerra Zibilari buruzko film bakarra, ikuspegi falangista nabari batetik egin -zuzendaria bera, Carlos Arévalo, falangista zen-. Bi ezkongaien historia kontatzen du, gerra zibilaren aurretik eta gerra garaian. Luisa falangista da eta Miguel CNTkoa. Harritzekoa bada ere, bai Falangek bai CNTk antzeko bandera dute, eta kolore berdinetakoa: gorria eta beltza. *Raza, Rojo y negro* filmaren aldi berean estreinatu zen baina bi aste besterik ez zuen iraun ikuskizunen sailean. Pelikula hiru ekitalditan garatzen da: Goiza, Eguna eta Gaua. Aurreneko biak laburrak dira: ezkongaien haurtzarora eta hastapen ideologikoak. Hirugarrenean Luisaren gorabeherak kontatzen zaizkigu, Madrilgo errepublika garaian zutabegile falangista zenean, eta Miguelenak, burukide anarkosindikalista zenean. Film aitzindaria da hau, lehen aldiz agertzen baita bertan erresistentzia kontzeptua aurkariak okupatutako hiri batean. Erresistentzia antimarxista, kasu honetan; filma egiteko moduak, ordea, baliteke berealdiko garrantzia izatea erresistentzia antifaxistarentzat, ondoren Frantzia, Ingalaterran eta Italian hainbat eta hainbat pelikularen inspirazio iturri izango zela kontuan hartuta.



2. saioa

2011ko abenduak 14

Kanaletako urak zeharkatzen dituzten ontziak jitoan

Miren Jaiok emana

Erakuntzaren eta suntsipenaren arteko dialektikak zeharkatuko du XX. mendea, Alain Badiou-k "mende formalista" izena eman ziona. Tentsio hori nabaria izan zen 60ko urteetako eta 70eko urteen hasierako adierazpen kultural ugariatako nihilismo negatibistan, mendearen bukaera goiztiarra iragarritz. Kontrakultura, distopia, antipsikiatria, *non-site*, antiforma edo anarkitektura bezalako terminoek formalismo modernoari aurka egiteko nahia erakutsi zuten, baita bere garaikide izandako gerrei ere, eta formalizazio berriak sortzeko nahia erakutsi zuten ere bai.

Gizaki berriaren mendea honela hasi zen, benetan hala gertatu baino pixka bat lehenago, Eiffel dorrearen ingeniari-tza lan handien burdinarekin eta zementuarekin, Suez eta Panamako kanalekin, estolda sailekin edo, paradoxikoki, Niagarako ur jauziekin. Eta *Sweet Movie*-n irudikatu bezala amaitu zen goiz, Amsterdameko kanaletatik nora ezean dabilen eroen ontzi bat bailitzan.





Miren Jaio arte kritikaria da eta Bulegoa z/b (www.bulegoa.org) deritzon arte eta ezagutzako bulegoko kidea. Gaur egun, Arte Garaikidearen Historiako irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU/UPV) eta doktore tesia prestatzen ari da. Egunkarietan eta arteko argitalpenetan idazten du, eta komisario-proiektuetan parte hartu izan du, *Beste Bat* eta *Talka Egin/Talking!*-en esaterako.

2. Saioaren egitaraua

🕒 Asteazkena, 2011ko abenduak 14

Lekua: SAN TELMO MUSEOA, Zuloaga plaza 1, Donostia

19:30 Aurkezpena

Kanaletako urak zeharkatzen dituzten ontziak jitoan. Miren Jaiok emana

[Hitzaldia euskaraz izango da](#)

20:30 Proiektzioa

Sweet Movie. Dusan Makaveje, 1974, Kanada, koloretakoa, 95'

Sweet Movie-k ez du narrazio linealik terminoaren zentzu formalean eta elkarren segidako puzzle piezen moduan dago egina, filmaren bukaeran bakarrik elkartzen diren bi istorio paralelo tartekatuz. 1984ko Munduko Miss "birjinena" aukeratzeko emakume ederren lehiaketa batekin hasten da. Kanadako Miss izango da garailea eta haxe bere saria, Mr. Dolarrekin ezkontzea: esne-industriako magnatea, munduko gizonik aberatsena dela uste izateaz gain urre trinkozko zakil izugarri handi baten jabe dena. Hari narratibo horren ondotik, lurrin-ontzi bat ikusten da Amsterdameko kanal batetik nabigatzen. *Biziraupena* du izena eta talla handi bat da bere bereizgarria, brankan daraman Karl Marxen aurpegiarena. Bertan doazen bidaiari gehienak oso gazteak dira (haurrak eta guzti, Ekialdeko Europan mendebalde zaharkituaren aurrean erregimen berria aurkezten zen moduaren erreferentzia argia, alegia), eta tonaka azukre eta goxoki darama. Bertako kapitaina, Anna edo Planeta Kapitaina, zeharo maitemintzen da marinel batez. Ibaian auto-stop egiten ari zela hartu zuen gizon hau, "Potemkim" hitza txapelean grabatuta duena, eromenezko bere maitalea izango da azkenean.




3. saioa

2011ko abenduak 15

Emergencias y catástrofes

José Miguel de Prada Poole-ek emana

Aurkezpen honetan larrialdi mota desberdinak sailkatuko dira, eragileen edo sorburuen arabera: katastrofe eta hondamendi naturalak (meteorologikoak, geologikoak, goseteak edo epidemiak eragindakoak) edo gizakian jatorria dutenak (gerrak, eskala handiko istripuak, populazioaren lekualdaketak); kokapen geografikoaren eta tokiko baldintzen arabera (topografia, klimatologia, dauden baliabide eta zerbitzuak, hornikuntza...); denboran izan duten iraunaldiaren eta larrialdi motaren arabera (egunak, asteak, hilabeteak, urteak, zehaztu ezin gabe...) edo hartzaile motaren arabera (kulturala, erakunde soziala, erlijioa, hizkuntza...). Horietatik abiatuta, irtenbide konstruktibo eta logistiko batzuk aditzera emango dira. Hona adibideak: *La Ciudad Instantánea de Ibiza* (1972), *Viviendas Experimentales de Cartón ondulado ETSAM* (1972), *Mercadillo Autoconstruible* (1976), *Alojamientos de Emergencia* (1980), *Viviendas de Papel para casos de catástrofes* (MIT, 1981), *Una Ciudad de Papel* (1986).



3. Saioaren egitaraua

📍 Osteguna, 2011ko abenduak 15

Lekua: SAN TELMO MUSEOA, Zuloaga plaza 1, Donostia

19:30 Aurkezpena

Emergencias y catástrofes. José Miguel de Prada
Poole-ek emana

20:30 Proiektzioa

La selva esmeralda. [The Emerald Forest] John
Boorman, 1985, Britainia Handia, koloretakoa, 108'

Amazonetako tribu batek, "Ikusezinak" izenekoak, mutiko bat bahitu eta haien kidea balitz bezala haziko du. Urteak joan ahala, nerabe denean, bere familiarekin elkartuko da berriro. Egoera horrek bi danbateko eragingo ditu: emozionala, haurrak tribua bere familiazat duelako baina bere familia biologikoa gogoan duelako, eta kulturala, aita tribuan sartzen delako semea berreskuratzeko. *La selva esmeralda* zazpi urteko mutiko baten benetako historia batean dago oinarrituta: ingeniari perutar baten semea, 1972an Brasilen bahitua. Urte batzuk geroago, semea Amazonetako tribu baten buruzagi bihurtu zela jakin zuen aitak.



José Miguel de Prada Poole doktore arkitektoa da, ETSAMeko (Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa) proiektuetako irakasle titularra. 1965ean graduatu zen ETSAMen eta 1978an lortu zuen doktoregoa. 20.000 bat orduko lan profesionala egin eta gero, eta gai baliagarri, alferrikako, esoteriko eta ulertezin ikasten 40.000 ordu baino gehiago eman ondoren, bere ustez Arkitektura hitzaren pean ezkututzen diren esanahi ilun eta ulertezin horiei buruzko ezjakintasunean murgilduta jarraitzen du, bai artistiko bai tekniko deitzen zaien arloetan. Populazioaren lekualdaketagatik, goseteagatik edo gerragatik sortutako larrialdi egoerekin zerikusia duten lanak egin izan ditu, horien artean: *Viviendas experimentales de cartón ondulado* (ETSAM, Madrid, 1972), *Ciudad iceberg. Una ciudad efímera y "soluble"* (1975), *Viviendas experimentales de emergencia, de cartón ondulado* (MIT, Cambridge, 1981), *Sea colony. Estudio experimental para una Colonia Científica Internacional flotante* (1986), *Alta tensión. Reutilización de torres y líneas de alta tensión obsoletas para agrupaciones de viviendas* (1991), *Viviendas "apilables" que dan lugar a edificios "difusos", o cuyo perfil y volumen cambia a lo largo del tiempo, para adaptarse a necesidades de catástrofes o emergencias* (1992).





4. saioa

2011ko abenduak 16

Movilizados por lo Real: turistas, soldados, artistas

José Díaz Cuyás-ek emana


Aisiaren antropologiarako ohiko bihurtu da turismoaren eragilea, esperientzia "erreal" bat bilatzea balitz bezala azaltzea. Bestearen ezagutzarekin lotutako esperientzia, nahiz eta bere "errealitatea" ez datorren bat inolako egoera objektiborekin. Hemen, benetakoa hauxe litzateke, baliabide erretorikoaren emaitza, eragin izateko eta konbentzitzeko duen gaitasunak zehaztutako sedukzio efektua. "Guztiok gara turista" premisan oinarritzen bagara, gure kondizio moderno-berantiarra *homo-turisticus* izatea dela, aisia-masaren bizipena eta dagokion *benetakotasunaren erretorika* eredu izan daiteke guretzat gure bizitza sozialaren beste alderdi batzuk pizteko.

Izan ere, hala gertatzen da turismoaren eta gerraren arteko parekotasun zalantzarria kontuan hartzen badugu. Gerrako turismoa industriarentzat garrantzizko arloa delako, edo bere parekotasun metaforikoak zeharka erakusten duenagatik ez ezik -inbasioa, okupazioa, mugimendua, kanpamentua,

ariketa, kamuflajea-, batik bat, azken finean heriotzarena baino esperientzia "errealagorik" ezin delako imajinatu. Hain zuzen ere, hortik datoz ezer egin gabe dabilen bidaiariari heriotzak markatutako lekuek eragiten dioten lotura sekretua eta erakargarritasun izugarria.

Arteari dagokionez, masen turismoak, parodikoki, "guztiok gara artista" utopia beteko luke. Hirurogeiko urteen inguruan, "guztia da artea" ideia orokortzen hasia zenean, artelaren zentzua "jarreraren" eta eraikitako "egoeraren" menpean egoten hasia zenean, abangoardiaren, gerraren eta turismoaren muturreko esperientzien arteko ezkutuko parekotasunekin eta ezusteko baliokidetasunekin topo egin genuen ere bai.

José Díaz Cuyás estetika eta artearen teoriako irakaslea da La Lagunako Unibertsitatean. Bere lanetatik nabarmentzekoak dira *Los Encuentros de Pamplona: Fin de fiesta del arte experimental*, MNCARS, 2009 topaketaren komisariotza eta horri lotutako argitalpena (Iruñea, 2010); *Ir y venir de Valcárcel Medina* erakusketarena eta horri lotutako katalogo arrazoitua, Fundación Tapiès et al. (2002), eta *Cuerpos a motor* liburuaren argitalpena, Palmetako CAAMek eta Konpostelako Santiagoko CGACek editatua (1997). 80ko urteetatik dihardu hitzaldiak ematen eta aldizkari espezializatuetan artikulua idazten. Zuzendaria da Acto Ediciones eta *ACTO: revista de pensamiento artístico contemporáneo*-koa (edizio digitala: www.revista-acto.net).



4. Saioaren egitaraua

🕒 Ostirala, 2011ko abenduak 16

Lekua: SAN TELMO MUSEOA, Zuloaga plaza 1, Donostia

19:30 Aurkezpena

Movilizados por lo auténtico: turistas, soldados, artistas. José Díaz Cuyás-ek emana

20:30 Proiektzioa

Spiritual Voices. [*Dukhovnye golosa*] Alexander Sokurov, 1995, Errusia, koloretakoa, 328'

Bost pasartetan banatutako film hau Sokurov-en beraren off ahotsak kontatutakoa da, egunkari pertsonal baten moduan. Sokurov-ek denborazko erreferentzia lausoan joko bat proposatzen digu, kontakizuna orainaldian egina baitago, baina idatzizko egunkari intimo gisa aurretik egina izatearen egiaztapenak ia etsipenez oroitutako lehenaldiaren ideia hartzen du barnean, *Spiritual Voices* osoan zehar sumatzen den "gogo aldartea" *nashtalghia* dela agerian utziz. Duen errusiar era horretan, nostalgia ez da galdutako garaiak eragindako mira, erbestearen mina baizik, etxe arrotzak eragindako aien isila. Filma banatuta dagoen bost ataletatik laugarrena proiektatuko da, 79 minutu irauten dituen. Laugarren atal hau funtsezkoa da, aurrekoetan ia ageri ez diren bi osagai erakusten dituelako: soldaduen arteko anaitasunaren adierazpen fisikoa eta indarkeria egoeraren hasiera.



Ekintza paraleloak

2011ko abenduaren 12tik 2012ko otsailaren 23ra bitartean


Otxarkoaga: Bilbao berriaren hastapena

Zenbait arkitekto, kritikarik eta urbanistak esan izan dute parke tematikoa sortzen hasia den hiriaren paradigma berria dela. Bizimodu tradizionalak gaitzesten dituen espazio berria, bertan bizi direnen arteko benetako elkarrekintza ia galdua dagoen lekua. Espazioaren bateratze eta homologazioarekin batera aipatzekoa da paradigma berri horren ondorioetako bat historiaren merkaturatzea eta denboraren dimentsioa galtzea litzatekeela.

Arkitektura: film mintzairak programaren 2009ko lehenengo ediziotik, hirien eraikuntza ikuspegi historiko kritiko batetik begiratu eta pentsatzea xede duten plataformekin eta elkarteekin elkarriketan aritzea lortu nahi izan da.

Otxarkoagako Familien Elkartearen 50. urteurreneko ekintzen artean aipatzekoa da bideo dokumental baten eta erakusketa baten ekoizpena, poligonoaren sortze prozesua biltzen dutena. Otxarkoaga gizartearen ikuspegitik izugarria den arazo bati

aurre egiteko modu berri bat balitz bezala sortu zen (migrazioa pobrezia lotuta, langileak eta industria berriek eskatzen zituzten baldintzak, etxebizitza falta..). Bai dokumentalak bai erakusketak urte haietan prentsan islatutako giroa, hiriko lan egoera eta egoera soziala, auzoko protagonisten testigantzak eta eraikuntza eta etxebizitza ikusteko modu berri horien ezaugarri nagusiak biltzen dituzte.



Inaugurazioa

📍 **Astelehena, 2011ko abenduak 12**

Lekua: COAVN, Frantzia pasealekua 11, Donostia

19:00 Hitzaldia

Otxarkoaga: un punto de inflexión en la arquitectura bilbaína

Luis Bilbao. Historialaria

Cristóbal Luis Rivera. Otxarkoagako Familien Elkarteko kidea

20:00 Proiektzioa

Otxarkoaga: Bilbao berriaren hastapena
12'50"

Saioaren moderatzailea: Hiria kolektiboa

Erakusketa 2011ko abenduaren 13tik 2012ko otsailaren 23ra arte egongo da zabalik. COAVN, Frantzia pasealekua 11, Donostia.

Tel.: 943 32 01 94.

<http://www.coavn.org>



ANTOLATZEN DUTE



PATRONOAK



PARTE HARTZEN DU

